

## N.A.O. 53. ALDIZKARIA – 2017ko martxoaren 16an

### ORDENANTZA FISKALA, LIZENTZIAK EMATEKO ETA HIRIGINTZA ARLOKO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK KONTROLATZEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA.

#### 4. ORDENANTZA

##### **OINARRIA**

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen lehenbiziko tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera, eta lege beraren 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

##### **ZERGA-EGITATEA**

2. artikulua. Hirigintzako jarduketei dagozkien zerbitzu tekniko eta administratiboak ematean datza zergapeko egintza, etxegintzaren eta lurzorua erabileraren arloko egintzak egokitu ahal izateko indarra duten hirigintza eta eraikuntza arauak.

3. artikulua. Tasa eskatzen duten hirigintzako jarduketek aurretiazko lizentziaren menpeko egintzak dute xede, edo ondoko kontrolaren menpekoak, lizentzia eskatu beharrean aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizuneko aitorpena aurkeztu behar denetan.

–Partikularrek aurkeztu antolamendurako plan partzial edo bereziak eta haien aldaketak, xehetasun azterlanak, aurrerapen azterlanak, antolamendurako planen aurrerapenak edo aurreproiektuak eta birzatiketak tramitatzea.

–Partikularrek aurkeztu urbanizazio proiektuak tramitatzea.

–Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 189. artikuluan zehaztutakoak, zehazki:

- a) Mota guztietako eraikuntza eta instalazio obrak, eraikuntza berrikoak badira.
- b) Jadanik diren mota guztietako eraikin eta instalazioak handitzeko obrak.
- c) Bestelako eraikin eta instalazioen egitura edo kanpoko itxura aldatu edo berritzen dituzten obrak.
- d) Eraikinen barneko egitura aldatzen duten obrak, edozein izanik ere duten erabilera.
- e) Behin-behinekoz egin behar diren obra eta erabilerak.
- f) Hirigintzako lurzatiketak eta landalurreko finkak banandu eta zatitzea.
- g) Lur-mugimenduak, hala nola zelaitu, lurrerauzi, hondeatu eta betetzeko lanak, salbu eta lan horiek zehaztu eta programatutako obrak badira onetsita den urbanizazio edo eraikuntza proiektu baten barrenean.

- h) Eraikin eta instalazioen lehenbiziko erabilera edo okupazioa eta haien erabileraren aldaketa.
- i) Eraikinak botatzea, salbu eta berehalako aurri-egoera deklaratzeko denean.
- j) Zorupeari eragiten dioten instalazioak.
- k) Arbolak eta zuhaixkak botatzea, baldin eta zuhaitz-masa, basogune, arboladi edo parke badira, planeamendu onetsia izan ala ez, salbu eta nekazaritzaren arloko legeek baimentzen dituzten lanak direnean.
- l) Presa, baltsa eta defentsa-obrak egin eta ubide publikoak zuzentzea, interes orokorreko obra publikoak ez badira.
- m) Agregakinak ateratzea eta harrobiak ustiatzea, jabari publikoko lurretan egin eta administrazioaren kontzesioa behar izanda ere.
- n) Eta, oro har, erregelamendu bidez adierazten diren egintzak, obrak ekartzen dituztelako, edo lurzoruaren nahiz zorupearen erabilera handitzen delako, haien erabilera pribatiboa dakartelako edo erabilera ez-normala edo lurren berezko nekazaritza edo oihangintzako erabileraz bertzelakoa dakartelako.

### **ORDAINDU BEHARRA**

4. artikulua. 1. Honako hauek daude salbuetsita tasak ordaintzetik obren lizentzia emateagatik edo erantzukizuneko aitortpenaren edo aurretiazko jakinarazpenaren menpeko obrak egindakoan kontrolatzeagatik:

- a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta bere helburuak betetzeko sortzen dituen entitate juridikoak.
- b) Udalerrien mankomunitateak eta batasunak, betiere Iruñeko Udala kide bada, bai eta helburuak betetzeko sortzen dituzten entitate juridikoak ere.

2. Tasa hauek direla medio Telefónica de España, S.A.U. enpresari egokitu lekiokkeen ordainketa dirutan egin beharreko urteko ordainaz ordezkatzeko da, Nafarroako Foru Erkidegoan Espainiako Telefono Konpainia Nazionalak behar duen tributu araubidea ezarri zuen abenduaren 29ko 11/1987 Foru Legeak xedatutakoarekin bat.

5. artikulua. Tasa lizentzia eskatzen denean sortuko da edo, kasua bada, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean.

Ez da ordaindu beharrik izanen Udalak lizentzia emateko erabakia hartu baino lehen interesdunak atzera egiten badu, edota adostasun-eginbidea izan baino lehen, lizentzia komunikatuak direnean. Ez da ordaindu beharrik izanen baldin jarduera hasteari uko egiten zaiola adierazten bada jardueraren geroko kontrolaren gaineko udal ebazpena eman aurretik.

### **SUBJEKTU PASIBOA**

6. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako tasen subjektu pasiboak dira pertsona fisiko eta juridikoak eta nortasun juridikorik izan ez, baina unitate ekonomiko edo ondare berezia diren

entitateak, baldin eta hirigintzako jarduketak egitea eskatu, aitortu edo adierazten badute edo egindako hirigintzako jarduketengatik edo emandako lizentziengatik eragina edo onura hartzen badute.

Eraikitzaileak eta obra kontratistak zergadunaren ordezkioak izanen dira, zoruari eta hiri antolamenduari buruzko arauetan hirigintzako lizentziak emateko aurreikusi diren tasetan.

### **TARIFAK ETA KARGA-TASAK**

7. artikulua. Aplikatu beharreko tarifa, tasa eta karga-oinarriak ordenantza honen eranskinean agertzen dira.

### **KUDEAKETA ARAUAK**

8. artikulua. 1. Hasiera batean autolikidazio araubidean eskatuko dira lizentziak eman eta hirigintzako jarduketak egiteko tasak, kasu hauetan: tramitazio laburtuko araubideari lotutako lizentziak, tramitazio bereziko lizentzia jakinaraziak eta erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa behar duten obrak direnean. Gainerako kasuetan, zerga arloko administrazioak egindako du behin-behineko likidazioa.

2. Autolikidazioaren araubidea aplikatzen den kasuetan, subjektu pasiboek kasuan kasuko tasen autolikidazioa egin beharko dute udal administrazioak eskura jartzen dituen inprimakietan. Betebehar hori ez betetzea tributu arloko arau-haustea da, Ordenantza fiskal Orokorraren III. kapituluaren xedatzen denaren arabera zehazten ahal dena. Tramitazio laburreko araubideari lotutako lizentzien kasuan edo lizentzia jakinarazien araubide bereziari lotutako kasuan eskatzaileak ondokoak aurkeztu beharko ditu, lizentzia-eskabidearekin batera: autolikidazioko agiria, behar bezala betetarik, eta ordainagiria. Autolikidazioa ordaintzeak ez dakar berekin lizentzia ematea, eta ordaindu izanaren gaineko ziurtagiria erretiratu beharra dago, behin bideratu eta gero, lizentzia kudeatzen duen bulegotik.

Erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezteko eskatzen den obretan, aitortpenarekin edo komunikazioarekin batera autolikidazioko agiria aurkeztuko da, behar bezala bete, bai eta ordainagiria ere.

3. Subjektu pasiboak aurkezten duen hasierako autolikidazioaren ordainketa edo zerga arloko administrazioak onetsitako hasierako likidazioarena behin-behinekoa izanen da, eta behin betiko ordaindu behar duen kopuruaren konturakoa.

9. artikulua. 1. Tasak tarifa finkoak ez badira, interesdunek aurkezten duten aurrekontuaren arabera zehaztuko da autolikidazioaren zerga-oinarria edo hasierako likidazioa, betiere dagokion elkargo ofizialak ikus-onetsi badu, hura nahitaezko baldintza denean. Bestelakoetan, udal teknikariek zehaztuko dute zerga-oinarria, egitasmoaren kostu zenbatetsian oinarrituta.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko proiektua aldatzen bada, eta horren aurrekontuak goiti egiten bada, behin Udal Administrazioak aldatuta onartu eta gero, zergaren likidazio osagarri bat onetsiko da, hasierako aurrekontuaren eta aldatuaren arteko aldea dela eta.

10. artikulua. 1. Behin eraikuntzak, instalazioak eta obrak bururatu eta egiazki egin direnak ikusita, gehienez ere hiru hilabeteko epean haien amaiera edo behin-behineko onarpenetik aitzina,

tributudunak deklarazio bat aurkeztuko du inguruabar hori azalduz eta eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako eta egiazko kostua adieraziz, eta, deklarazioarekin batera, obraren zuzendari eskudunak haren gainean emandako egiaztagiria, betiere dagokion elkargo profesionalak ikus- onetsia, eta, halakorik behar izatera, kostu hori egiaztatze fakturak edo bertzelako agiriak, Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren 12.3. artikuluan aipatzen baitira. Irekitzeko lizentziarik, erabilera aldatzekorik, lehen erabilerakorik edo bertze zenbait lizentzia bideratu behar izanez gero, agiri horiek kasuan kasuko lizentziarako eskaerarekin batera aurkezten ahalko dira.

2. Behin benetako kostua ezagututa, eta administrazioak egitekoa den egiaztapena eginik, tributu arloko administrazioak behin betiko likidazioa egingen du, subjektu pasiboak hasieran lizentzia bakoitzeko autolikidatutako kuotarekin dagoen diferentzia positibo edo negatiboaren gainean, halako eran non, behar izatera, subjektu pasiboari behar den kopurua galdatu edo itzuliko baitzaio.

11. artikulua. 1. Udal Administrazioak egiaztatuko du autolikidazioak ordenantza honetako arauak zuzen aplikatuz egin direla eta, beraz, kalkulaturako oinarri eta kuotak arau horien emaitza dela.

2. Udalaren Administrazioa autolikidazioekin ados ez badago, likidazioak egingen ditu, gaizki aplikaturako kontzeptuak edo datuak eta akats aritmetikoak zuzenduta, berandutzaren interesak kalkulatuak ditu eta behar diren zehapenak ezarriko ditu. Orobat, subjektu pasiboak deklaratu ez dituen zergapeko egintzen likidazioa egingen du.

12. artikulua. Arau-hausteei eta zehapenei dagokien orotan, ordenantza fiskal orokorrean xedatutakoari jarraituko zaio.

## TARIFEN ERANSKINA

I. epigrafea.–Antolamendurako plan partzial edo berezien tramitazioa.

Espediente bakoitza tramitatu eta ebazteko tasak, plan bakoitzaren barrenean sartzen den lurzorua zabaleraren arabera likidatuko dira, hain zuzen ere 93,64 euro 1.000 metro karratu edo horren zatiki bakoitzeko.

**II. epigrafea.–Plan partzial edo berezien aldaketak eta xehetasun azterlanak tramitatzea.**

Aplikatzeko tarifak I. epigrafekoen %50 izanen dira.

**III. epigrafea.–Birzatiketen tramitazioa.**

III-A) Birzatiketa-espeditenteak tramitatu eta ebazteko tasak guztira erabiltzen den azalera edo bolumen eraikigarriaren arabera likidatuko dira, tarifa hauei jarraituz:

–1.000 metro karratu edo zatiki bakoitza: 93,64 euro.

III-B) Birzatiketen aldaketen tramitazioa:

Aplikatzeko tarifak III.A epigrafekoen %50 izanen dira.

#### **IV. epigrafea.–Eskatzaileek egindako urbanizazio proiektuak tramitatzea.**

Proiektuaren kostuaren arabera egingen da tasen likidazioa, %1,70eko karga-tasa aplikatuta.

#### **V. epigrafea.–Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Legearen 189. artikulua babesean emandako lizentziak.**

V-1) Finkak zatitu, banandu edo bereizteko lizentziak:

–Lizentzia bakoitza tramitatu eta ebatzeagatik ondoko tasa ordaindu beharko da: 131,71 euro.

V-2) Eraikitze, handitze, eraberritze eta eraiste obrak egiteko, lurak mugitzeko, arbolak mozteko eta horma irudiak paratzeko lizentziak, eta lizentziapean egin beharreko gainerako egintzak, aitzineko ataletan jaso ez badira:

–Tasa kalkulatzeko, 10. eta 11. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz zehaztutako zerga-oinarriari %50eko karga-tasa aplikatuko zaio, 54,54 euro, gutxienez.

V-3) Lizentziak, eraikinak eta instalazioak lehen aldiz erabili edo okupatzeagatik:

–Lizentzia emateko espediente bakoitza tramitatu eta ebatzeagatik, ondoko tasa ordaindu beharko da: 823,20 euro.

V-4) Eraikinen erabilera, erabat edo hein batean, aldatzeko lizentziak:

Lizentzia emateko espediente bakoitza tramitatu eta ebatzeagatik ondoko tasa ordaindu beharko da: 617,40 euro.

#### **VI. epigrafea.–Gutxieneko eskubideak.**

Aurreko epigrafeengatik ordaindu behar diren tasak gutxieneko zenbateko haietatik beheitikoak badira, honako hauek ordaindu beharko dira:

–Plan partzialak edo bereziak tramitatzea: 497,01 euro.

–Plan partzial edo berezietan eta xehetasun azterlanetan aldaketak tramitatzea: 249,02 euro.

–Birzatatketak: 497,01 euro.

–Lurzatatketak: 131,71 euro.

–Obra lizentziak: 54,54 euro.